



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

CEIP LEZO HLHI

Ikastetxearen kodea:

012979

Data:

2023(e)ko ekainaren 6(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Lezo Herri Eskola Lezoko ikastetxe publikoa da, bertan haur eta lehen hezkuntzako ikasketak egiten direlarik.

Lezo 6.000 biztanle inguru dituen herria da, orokorrean, familien ekonomi maila ertain-baxua da.

Eskola D eredukoa da, Haur Hezkuntzan 129 ikasle eta Lehen Hezkuntza 260 daude honela banaturik: bi gela maila bakoitzeko hirugarren zikloan izan ezik hiru direla. Irakasle kopurua 52koa da jardun murriztuak kontutan harturik.

Eskolako eraikuntza 1.995. urtekoa da eta 2.003. urtean handitua izan zen. Ikasgela kopuru nahikoa du, honekin batera: Gela Egonkorra, musika gela, 200 m2 Gorputz Hezkuntzarako gimnasio bat du, 225 m2-tako bi estalpe, estali gabeko patioa eta estalitako kantxa bat.

Lezo Herri Eskolan urteetan hiru ardatz nagusiren inguruan lanean aritu gara, “kalitatezko irakaskuntza publikoaren garrantzia, euskararekiko konpromisoan eta pedagogi berritzaileen lanketan”.

Esandako hiru ardatz horietatik lehenengoa, kalitatezko irakaskuntza publikoaren garrantzia da. Eskola publikoa gizartearen islada izanik eta herriko subjektu aktiboa den heinean, herriko beste taldeekin elkarlanean ibiltzea ezinbestekoa dugu, bai udala, guraso elkarte, zein kultur elkarteekin. Hauekin harreman dinamiko eta hurbila nahitaezkoa dugu.

Euskararekiko konpromisoaren aldetik, hizkuntzaren normalkuntza da gure helburua, ez bakarria hizkuntza helburu akademiko bezala. Normalkuntza honen aldera lan sakona egiten ari gara gurean, modu eta leku ezberdinetan jorratuz bera, bai modu formalean, ez formalean eta baita aisialdian ere. Horretan aktiboki lanean ditugu Euskara Batzordea, Euskara Talaia, non guraso, irakasle eta zuzendaritza taldea elkar-lanean dabiltzan, eta nola ez, irakasle talde osoa, normalkuntzaren helburua beti argi izanik.

Pedagogi berritzaileen lanketaren inguruan, etengabeko formakuntza, kooperatiboki lan egiten eta bertan sakonago murgilduz. Ikaslearen indibidualtasuna eta denborak errespetatuz, bakoitzak dituen gaitasun naturalak indartuz, eta ahuleziak jorratuz. Formakuntzak eskolaren lotura egingo du, ikaslea eskolan hasten denetik ateratzen den arte.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikasgela bakoitzeko ordenagailu eta pantaila elkarreragile bana.

L.H. 3. zikloko ikasleentzako minieramangarri bana eta hauek kargatzeko armairuak.

L.H. 1 eta 2 zikloko ikasleentzako minieramangarri nahiko eta hauek kargatzeko armairuak.

Zerbitzariak

Proiektoreak

Zuntz optikoa eta WiFi L.H.-ko geletan

CAU mantentze zerbitzua

Google Workspace

Innovamat

Leobien

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Hezkuntza-sisteman gaitasun digitala garatzeak IKTen erabilera ikasgeletan integratzea eta irakasleek prestakuntza izatea

konpetentzia horretan litzateke gure IPDren helburu nagusia. Konektibitatea eta ekipamenduak iristen ari badira ere, zailagoa da irakaslerian gaitasun-maila orokor nahikoa egotea prestakuntza-plan koherente bat garatu gabe eta irakasle-taldea IKTen ohiko erabileran inplikatu gabe. Azken urteotan eskola prozesu horretan murgilduta egon da eta hainbat ekimenetan parte hartu du:

Ikastetxearen IKT Heldutasun Eredua programan, non maila ertaina erdietsi genuen 2014an. Sare Hezkuntza Gelan proiektuan ere parte hartu genuen bi ikasturtetan zehar (2017/18 eta 2018/19).

2022-2023 ikasturtetik aurrera matematika Innovamatekin lantzen ari gara.

Gauzak horrela ezinbestekoa da hurrengo urteetan etengabeko prestakuntza profesionalari bultzada ematea.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

2022-2023 ikasturtean, Hezkuntzak, ikastetxe

guztiek Ikastetxearen Proiektu Digitala egitea eta Digitalizazio Batzordea

eratzeari eskatu du. BeAtarra, idazkariak eta ikasketa-buruak osatu dute eta zikloko koordinatzaileak informatuta egon dira.

Lehentasunak zehazterakoan, DigComOrg markoaren zazpi eremuak

kontuan hartuko dira, eta gutxienez eremu bakoitzeko helburu bat idatziko da.

1. Azpiegitura
2. Lidergoa eta Gobernantza
3. Irakaskuntza eta Ikaskuntza
4. Garapen Profesionala
5. Ebaluazioa
6. Edukiak eta Curriculum
7. Laguntza eta Lankidetzaren Sareak

Planifikazioa IPDren hezurdura Digitalizazio Batzordeak egin du, hori zikloetara eramango da oportunitateak jasotzeko eta azkenik klustroak eta OOGak ontzat eman ezkerreko IPDa 2023-24 ikasturteko IUPEan txertatuko da.

Lehentasuna klustroa formatzea izango da. Horretarako eskuragarri ditugun harrimintak ezagututa, klustroari aurkeztu.

Ezagutzen diren tresnak gelan aplikatzea.

Aurten Curridigi egitea izango da helburu.

Kurtso bukaeran hurrengo ikasturterako formakuntzak adostu, klustroaren behararen arabera.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Arestian aipatu bezala, Lezo Herri Eskolak urte luzeak daramazki gaitasun digitalaren inguruan lanean. Eskola 2.0 ekimenetik eta are lehenagotik ere, eskola komunitate osoarentzako gaitze ekintza eta jarduerak ezberdinak antolatu izan ditu ikasle, irakasle eta familien gaitasun digitala sendotzen eta aberasten. Ikastetxeko Urteko Planetan, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan eta berau gidatu duten zuzendaritza proiektuetan islada espezifikoak izan du gaitasun honen lanketak aurreko ikasturteetan.

Aipatutako bidean, aurkezten dugun Proiektu Digital honek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari honako ataletan egiten dio ekarpena:

Eskola komunitatearen gaitasun digitalaren gaitzea.

Irakasleriaren gaitasun digitalaren formakuntza.

Irakasleriaren gaitasun digitalaren aplikazio praktikoa.

Ikastetxearen Heldutasun Digitala sendotzea.

Ikastetxeko ebaluazio prozesuetan gaitasun digitalaren ekarpena.

Hobekuntza prozesutarako ekarpena.

Aipatu sei atala hauek bai Urteko Planean atal hauetan garatu egiten dira:

Eskolako proiektu digitala eguneratzea.

Irakasleen akreditazioa lortzeko moduluak egitea.

Familien inplikazioa sustatzeko onlineko galdetegiak.

Irakasleek IKT gaitasun maila lortzea.

Aipatu helburuen betetze maila zein den jakiteko eta dagokion hobekuntza prozesuan lagungarria izan dadin, honako ebaluazio baliabideak erabiliko ditugu:

Kontrol zerrenda

Asebetetze maila

Hobekuntza proposamenak



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Estrategia digitalean lidergoak duen garrantziari dagokionez, irakasleriak zuzendaritzak baino argiago ikusten du lidergoa badagoela (zuzendaritzak izan beharko luke, digitalizazio batzordearekin batera lidergo hori gauzatzen duena). Zuzendaritzak IKTen erabileraren inguruko hausnarketa bideratzen du irakasleekin eta hauek estrategia eta praktika berriak azter ditzaten bultzatzen du.

Klaustrokideen artean talde-lanean aritzeko ohitura dago gure indarguneetako bat eta teknologiaren erabileraren inguruko eztabaidak ere izaten ditugu irakasle eta zuzendaritzaren artean, baina ikasleekin ere prozesu hori egin beharko genuke, beraiek ere prozesuaren parte dira eta. Beste erakundeekin elkarlanean jarduteko estrategietan eta ohituretan ere hobetu beharra dugu eta eskura ditugun tresnak erabiltzen hasi beharko genuke hezkuntza komunitateko partaideak lankidetzan proiektuetan ari daitezen.

Azpiegitura eta ekipoei dagokionez oso indartsu gaude Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saitetik jasotzen dugun hornidurari esker, nahiz eta behin baino gehiagotan gure iritzia eta beharrak kontuan izatea eskertuko genukeen, eta behar ez dugun tresneria jaso beharrean inbertsioak behar ditugun lizentzia eta abarretan egitea ahalbidetuko baligute.

Hobetu beharreko alor bat Etengabeko Prestakuntza Profesionalari dagokiona da, non, batez ere zuzendaritzaren partetik, ikaskuntzan emaitza hobeak lortzeko irakasleen prestakuntza indartu beharra ikusten den, hala nola berdinen arteko esperientzien trukaketa sustatu beharra. Argitu behar da prestakuntzak asko lagundu arren, eta IKTei dagokienez are gehiago, honek ez duela bermatzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen hobekuntza eta eguneroko erabilera eta sistematizazioa izango dira hobekuntza honetan giltzarriak.

Pedagogia baliabide eta laguntzetan ikastetxea sendo dagoela ikus dezakegu SELFIE galdetegia ikusita, nahiz eta baliabide digitalen sorreran nahiz ikasteko ingurune birtualen erabileran sakondu beharko genukeen. Hau horrelako izateko arrazoia, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea izanik, batez ere hirugarren zikloan egiten dela IKTekin lan, beheragoko mailetan geroz eta gehiago erabiltzen ditugun arren.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Webgune ez oso dinamikoa.
Klaustroko kide batzuen irakastordu-gainkargak konpromisorik eza eragiten du beste jarduera batzuetan.
Datuak Babesteko Plana eguneratu gabe.
Gaitasunen ebaluazioa, atzeraelikadura eta nork bere ikaskuntzan edota besteei buruzko hausnarketa.
Disziplinarteko proiektuetan teknologia digitalen erabilpena.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Laguntza tekniko mugatua.
Benetazko IKT perfila duen arduraduna.
WIFlaren moteltasuna

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Eskolako gailu digitalen hornidura.
Irakasle batzuen online baliabideen erabilpena.
Teknologia digitalen erabilpena komunikazioarako.
Irakasleen artean teknologia digitalekin lotutako bizipenak partekatzea.
Klaustrokideen artean talde-lanean aritzeko ohitura.

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Guraso elkarteak ikastetxeko hezkuntza-jardueretan parte hartzera bultzatzea.
Laguntzeko prest dauden inguruko erakundeak.
Beste ikastetxe batzuetako jardunbide egokiak eta esperientzia berritzaileak ezagutzeko aukera.
Irakasle berrien metodologia eta motibazio berriak.
Prestakuntza-ikastaroak egiteko aukera.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Irakasle berrien metodologia eta motibazio berriak.

Eskolara etortzen diren irakasle berrien jakintza digitala aprobetxatu eskolan berriztatzen digitalak burutzen joateko.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Ikusirik daukagun webgune zaharkituta gelditu dela eta dauden aukerak ikusirik webgune berri bat sortu.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Klaustrokideen artean talde-lanean aritzeko ohitura dugnez hori aprobetxatuko dugu ikas-egoeretan gaitasun digitalak txertatzeko.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

IKT figura teknopedagogikoari ordu kreditua eskeintzea eskolako funtzionamendu teknopedagogikoa behar bezala joateko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Proiektu digitala idaztea eta inplementatzea		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1 A2 Proiektu digitala idatzi da.	Bai/Ez	Bai
Proiektu digitala inplementatu da.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Baliabide digitalen inguruan hausnarketa egitea	IKT baliabideak	Batzorde digitala	2024/06/15	Detektatua
IPDa sortu et inplementatu	IPDa eta Selfie For School	Batzorde digitala	2024/06/15	Hasita (%1-19)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
Egutegian formakuntza saioak ere finkatzea		
Deskriptorea		Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean		2024/06/15
Adierazlea		Helmuga
Egutegi bat finkatu da lan saioak ezarriz, IIBen erabilera landu eta irakasleen artean jardunbide egokia		24-06-15

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Lan saioak finkatu		Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua
B1 lortu		BeAtarra	2024/06/15	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen Harrera Planaren barruan, baliabide digitalen erabilera azaltzea

Deskriptorea

Epea

GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa

2024/06/15

Adierazlea

Mota

Helmuga

GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilera

Bai/Ez

24-06-15

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen Harrera Plana egokitu ikastetxean erabiltzen den arlo digitala txertatuz	Harrera plana	Zuzendaritza taldea	2024/06/28	Detektatua
Ikastetxean erabiltzen diren baliabide digitalak zerrendatu	Baliabide digitalak	Digitalizazio batzordea	Digitalizazio bat 	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Ebaluaziorako tresna digitalak txertatzea		
Deskriptorea		Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da		2024/06/15
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ebaluazio tresna digitalak erabiltzea.	Ehunekotan	%25

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ebaluazio tresna digitalak txertatu eta erabilera sistematizatu		Ziklo koordinatzaileak	2024/06/15	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua		
Irakasleak ikas egoeretan erabiltzeko material digitala sortzea.		
Deskriptorea		Epea
EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia		2024/06/22
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.1 A1 Curriculum-arloen/ikasgaien % ... ean, gutxienez, ikasleek eduki eta baliabide digitalak sortze	Ehunekotan	%25

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleek ikas egoeretarako material digitala sortzea	Baliabide digitalak	Irakaslegoa	2024/06/15	Detektatua
Biltegi birtual bat sortzea sortutako eduki digitalekin.	Baliabide digitalak	BeAtarra	2024/06/15	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Ikastetxeak kanpo komunikaziorako estrategia diseinatzea

Deskriptorea

EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa

Epea

2025/06/21

Adierazlea

EN 2.2 A1 Ikastetxeak ikastetxearen komunikazio-plana, eguneratze-bitartekoak eta -prozedurak zehaz

Mota

Bai/Ez

Helmuga

Bai

Ekintzak

Web orria berritzea eta dinamizatzea

Baliabideak

Hezkuntzaren liferay

Arduradunak

Zuzendaritza taldea
eta batzorde digitala

Epea

2025/06/14

Egoera

Detektatua

Arduradun bat izendatzea web orria
elikatzeko

Web orri berria

WEb orri arduraduna

2025/09/27

Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Ikastetxe ekipamendu informatikoaren funtzionamendua bermatzea		
Deskriptorea		Epea
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak		2023/12/22
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Arazo teknikoa daudenerako protokoloa sortu.	Drive	Batzorde digitala	2023/12/22	Hasita (%1-19)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Deskriptorea

Epea

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Proiektu digitala idaztea eta implementatzea	2025/06/15	Proiektua egin den	Zuzendaritza taldea	Hasita (%1-19)	
II	Egutegian formakuntza saioak ere finkatzea	2024/06/15	Check list	Zuzendaritza taldea	Detektatua	
GP	Irakasleen Herrera Planaren barruan, baliabide digitalen erabilera azaltzea	2024/06/15	Check list	Zuzendaritza taldea	Detektatua	
EJ	Ebaluaziorako tresna digitalak txertatzea	2026/05/15	Galdetegia	Zuzendaritza taldea	Detektatua	
EC	Irakasleak ikas egoeretan erabiltzeko material digitala sortzea.	2026/05/15	Galdetegia	Zuzendaritza taldea	Detektatua	
EN	Ikastetxeak kanpo komunikaziorako estrategia diseinatzea	2025/06/15	Ea egin den	Zuzendaritza taldea	Detektatua	
AZ	Ikastetxe ekipamendu informatikoaren funtzionamendua bermatzea	2024/06/15	Ea protokoloa sortu den	Zuzendaritza taldea	Hasita (%1-19)	
IB						